



Futbola

Alaves: Pablo Gomezek bi denboralditarako luzatu du kontratua, hirugarren urterako aukerarekin → **30**



Saskibaloia

Tau Baskonia: G-14 taldea osatzen duten klubek Europako txapelketa propioa egitea erabaki dute, FIBAtik landa → **36**

Portland ♦ Talde nafarrak jokalaria frantziarra aurkeztu zuen atzo jendaurrean, denboraldiko lehenengo fitxaketa

Richardson etorri da

San Antoniorekin «goia jotzeko prest» iritsi da zentral frantziarra Asobal Ligara

Eduñe Elizondo / Iruñea

PORTLAND San Antoniok denboraldiko lehen fitxaketa aurkeztu zuen atzo: Jackson Richardson erdilari frantziarra, munduko jokalaria onenetariko bat, alegia. Jokalariak bi urterako kontratua sinatu du talde nafarrekin, Alemaniako Grosswallstadt taldea utzi ondoren.

Richardson «kontent» agertu zen atzoko aurkezpenean, eta Portlandekin «goia jo» nahi duela azpimarratu zuen: «San Antonioren partida asko ikusi ditut aurten telebistan, eta talde handia dela uste dut. Gogor lan egiteko prest nago; daukadan guztia emanen dut, Portlandekin goian egoteko», erran zuen jokalaria.

Talde berriko girora egokitzeko arazorik ez duela izan uste du Richardstonek, eta Asobal Liga Alemaniakoa baino egokiagoa dela bereztzat, «alemaniarra oso gogorra delako».

Gainera, San Antonioko hainbat jokalaria ezagutzen dituela azpimarratu zuen Richardstonek, tartean, Olalla, Garralda, Buligan eta Iakimovitx. «Frantziako selekzioarekin haien kontra jokatu dut askotan, eta, orain, haiekin jokatze gogo handia dut. Iruñera etorri nahi nuen, eta kontent nago lortu dudalako», gaineratu zuen Richardstonek.

Tajadura: «Guretzat eta Ligarako ona da»

Portlandeko lehendakari Fermin Tajadura ere pozik zegoen atzo: «Portland ahalegin handia egin du Richardson ekartzeko, baina guretzat eta Asobal ligarako oso jokalaria izanen dela ziur gara. Ikuskizuna da Richardson jokoa ikustea».



Jackson Richardstonek Portlandeko elastikoarekin jokatuko du datozen bi denboraldietan.

San Antonio

■ ■ ■ «Portlanden partida asko ikusi izan ditut telebistan, eta talde handia dela uste dut»

Jokalariak

■ ■ ■ «Olalla edo Garralda bezalako jokalariekin jokatze gogo nuen, beti kontra aritu ondoren»

Helburua

■ ■ ■ «Gogor lan egiteko prest nago; daukadan guztia emanen dut Portlandekin goian egoteko»

Ekisoain: «Luxu handia da taldearentzat»

■ PORTLANDEKO entrenatzaile Zupo Ekisoainek Jackson Richardson taldean edukitzea «luxu handia» dela erran zuen atzo, jokalaria berria aurkezteko egin agerraldian. Taldeak zentral frantziarra kontra-

tatzeko egin behar izan duen ahalegina eskertu zuen, eta jokalaria taldea «aberrastu» egingen duela nabarmendu: «Gure jokoari bizitasuna emanen dio, bai defentsan bai aurrealdean ere. Kalitate handiko jokalaria da

eta baliabide ugari ditu», erran zuen Ekisoainek.

Portlandeko entrenatzailearen kezka bakarra da irailean Frantziako selekzioarekin izanen dela Richardson, Sidneyko Joko Olinpiketan, eta, ondo-

rioz, Asobal Liga hasi baino bi aste lehenago iritsiko dela jokalaria berria Iruñera. Hori dela eta, lau eguneko kontzentrazioa egin nahi du Ekisoainek Liga hasi aurretik, Richardson talde berrira egokitze.

Portland ari da plantilla berritzen

■ Denboraldia amaituta, jokalaria mugimendua hasi da Portland San Antonioren baitan. Batzuk badatoz eta beste batzuk badoaz; jarraitu egingo dute gehienek, eta gutxi batzuren etorkizuna ez dago oraindik argi.

Jackson Richardson • Ailegatu berria, Portlandek atzo aurkeztu zuen lehen fitxaketa. 277 aldiz jokatu du Frantziako selekzioarekin eta 1995. urtean munduko jokalaria onena izendatu zuten. XX. mendeko zazpi jokalaria onenen artean ere egon da.

Peter Norklit eta Txetxu Villadea • Bi jokalariek ez dute Portland San Antonio taldeak jarraituko datorren denboraldian. Zuzendaritzak taldeak at daudela jakinarazi die dagoeneko. Norklitek urtebeterako kontratua sinatu du Altea taldearekin.

Peter Gentzel • Atezaina azkenean Iruñera etorriko den ez dago oraindik batere argi. Granollersek ere eskaintza egin dio eta badirudi errazagoa dela hori onartzea nafarrean baino.

Xabier Mikel Errekondo eta Alvaro Jauregi • Bi jokalariek, ziurrenik, taldean jarraituko dute hurrengo denboraldian. Zupo Ekisoain entrenatzaileak atzo ezagutzera eman zuenez

Alexandru Buligan • Taldeak ez du oraindik Buliganekin hitz egin kontratua berritzeko. Ekisoain ez zen kontent agertu atzo atezainen lanarekin.